

Règlement d'attribution des aides sociales facultatives

du Centre Communal d'Action Sociale Cambo-Les-Bains

<<<<<<< >>>>>>>

Gizarte laguntza fakultatiboak esleitzeko araudia

Gizarte Ekintzako Herriko Zentroa Kanbo



<p>Adopté en Conseil d'Administration</p> <p>Par voie de délibération le 13 septembre 2019</p> <p>C.C.A.S. CAMBO-LES-BAINS 14 avenue de la Mairie Centre Multi-Services 64250 CAMBO-LES-BAINS</p> <p>ccas@mairie-cambolesbains.fr Tel. : 05.59.93.50.76</p>	<p>Administrazio Kontseiluan onartua</p> <p>2019ko irailaren 13ko deliberoaren ondorioz</p> <p>KANBOKO GEHZ Herriko Etxeko etorbidea, 14 Zerbitzu Anitzeko Zentroa 64250 KANBO</p> <p>ccas@mairie-cambolesbains.fr Tel. : 05.59.93.50.76</p>
--	---

Sommaire - Aurkibidea

1. Préambule – Hitzaurrea.....	Error! Bookmark not defined.
2. Rappel des missions du C.C.A.S. – GEHZren eginkizunen gogoratzea...	Error! Bookmark not defined.
3. Caractéristiques de l'aide sociale facultative – Gizarte laguntza fakultatiboaren ezaugarriak	Error! Bookmark not defined.
4. Modalités d'attribution des aides – Laguntzak esleitzeko moduak	5
4.1 Les droits et garanties reconnus à l'utilisateur – Erabiltzaileari onartutako eskubideak eta bermeak.....	5
1. Secret professionnel – Sekretu profesionala	5
2. Droit d'accès aux dossiers – Dosierretan sarbidea izateko eskubidea.....	6
3. Droits de recours – Errekurtso-eskubideak.....	6
4.2 L'instruction des demandes – Eskaeren instrukzioa	6
4.3 Les conditions d'éligibilité – Hautagarritasun-baldintzak.....	7
4.4 Les organes de décisions – Erabaki-organoak.....	7
4.5 Les décisions – Erabakiak.....	8
5. Présentation des aides – Laguntzen aurkezpena	8
Aide à la cantine – Jantegiko laguntza.....	9
Aide au chauffage – Berokuntza-laguntza.....	10
Aides financières exceptionnelles – Ezohiko diru laguntzak.....	11
Secours d'urgence – Larrialdiko laguntzak.....	Error! Bookmark not defined.

1. Préambule

Le Centre Communal d'Action Sociale intervient dans le cadre de l'article L.123-5 du Code de l'Action Sociale et des Familles qui énonce : « Le Centre Communal d'Action Sociale anime une action générale de prévention et de développement social dans la commune, en liaison étroite avec les institutions publiques et privées ».

En application du Code de la Famille et de l'Aide Sociale et du décret N°95-562 du 6 mai 1995, le présent règlement a pour objet de définir la nature, les conditions et les modalités d'attributions des secours dans le cadre de l'action sociale facultative du C.C.A.S. de Cambo-Les-Bains.

La commune de Cambo-Les-Bains souhaite que soit développée sur le territoire de la commune une politique d'aide aux habitants de la Commune rencontrant des difficultés sociales et financières.

Le C.C.A.S. de Cambo-Les-Bains, dans le cadre de ses compétences sur la base de l'article L.125-5 du CASF, propose aux résidents de Cambo-Les-Bains des aides sociales facultatives qui viennent en complément des dispositifs légaux et réglementaires.

Le Conseil d'Administration du C.C.A.S. par délibération en date du ... a adopté le présent règlement d'aides sociales facultatives en vertu du principe de libre administration des collectivités territoriales pour l'octroi de ces aides. Elles doivent permettre à des personnes de faire face à des difficultés majeures ponctuelles.

Notre volonté d'établir un règlement d'attribution de ces aides répond à plusieurs objectifs :

1. Hitzaurrea

Gizarte Ekintzako Herriko Zentroak Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodearen (GEFK) L.123-5 artikulua esparruan esku hartzen du. Artikulu horrek honako hau adierazten du: « Gizarte Ekintzako Herriko Zentroak prebentzio eta garapen sozialeko ekintza orokor bat sustatzen du herrian, erakunde publiko eta pribatuekin harreman estuan ».

Familiaren eta Gizarte Laguntzaren Kodea eta 1995eko maiatzaren 6ko 95-562 zenbakidun dekretua aplikatuz, araudi honen xedea da laguntzen izaera, baldintzak eta esleitze moduak zehaztea, Kanboko GEHZren gizarte laguntza fakultatiboaren esparruan.

Kanboko herriak herriaren lurraldean gizarte- eta finantza-arazoak dituzten herritarrei laguntzeko politikak garatzeko asmoa du.

Kanboko GEHZk, bere eskumenen esparruan, GEFKren L.125-5 artikuluan oinarrituta, Kanboko egoiliarrei legezko eta arauzko baliabideen osagarri diren gizarte-laguntza fakultatiboak proposatzen dizkie.

GEHZko Administrazio Kontseiluak ...(e)ko deliberoaren ondorioz gizarte laguntza fakultatiboaren araudi hau onartu zuen, laguntza horiek emateko lurralde elkargoen administrazio askearen printzipioari jarraikiz. Jendeen noizbehinkako zailtasun larriei aurre egiteko aukera eman behar dute.

Laguntza horiek esleitzeko araudia ezartzeko dugun borondateak hainbat helburu ditu:

- Améliorer la qualité et la cohérence des aides proposées en les rendant toujours plus adaptées aux besoins des habitants ;
- Rendre plus transparentes les modalités d'attribution des aides.

Ce règlement sert à la fois de support juridique aux décisions pouvant être prises et en même temps de support d'information pratique à l'attention des bénéficiaires.

Ce règlement s'adresse donc aux bénéficiaires, mais également aux élus du C.C.A.S. et de la commune, ainsi qu'aux partenaires et intervenants sociaux du territoire.

Ce règlement peut à tout moment faire l'objet de modifications par le Conseil d'Administration du C.C.A.S.

2. Rappel des missions du C.C.A.S.

Le C.C.A.S. a pour mission d'aider et d'accompagner les personnes en situation de fragilité : personnes âgées, isolées, handicapées, les enfants et les familles en difficulté.

Dans ce cadre, le C.C.A.S. de Cambo-Les-Bains développe un dispositif d'aides sociales facultatives regroupant l'ensemble des prestations et services que le centre met à disposition des habitants de la commune qui en démontrent le besoin.

3. Caractéristiques de l'aide sociale facultative

Contrairement à l'aide sociale légale, l'aide sociale facultative n'a pas de caractère obligatoire et relève de la volonté du C.C.A.S. Il s'agit d'aides qui peuvent venir en complément de l'aide sociale légale et qui dépendent de la politique sociale développée par la commune de Cambo-Les-Bains.

- Proposatutako laguntzen kalitatea eta koherentzia hobetzea, herritarren beharretara gero eta gehiago egokituz;
- Laguntzak esleitzeko moduak gardenagoak izatea.

Araudi honek, aldi berean, har daitezkeen erabakiei oinarri juridikoa ematen die, eta, onuradunei informazio praktikoa ematen laguntzen die.

Araudi hau, beraz, onuradunentzat da, baina GEHZko eta herriko hautetsientzat da ere, eta lurraldeko partaide eta eragile sozialentzat ere.

GEHZko Administrazio Kontseiluak araudi hau noiznahi alda dezake.

2. GEHZren eginkizunen gogoratzea

GEHZk ahultasun-egoeran dauden pertsoneri (zaharrak, bakartuak, ezinduek, haurrak eta zailtasunak dituzten familiak) laguntzeko eta sostengatzeko eginkizuna du.

Eginkizun horren barnean, Kanboko GEHZk gizarte-laguntza fakultatiboak ematen ditu. Baliabide horrek GEHZren prestazio eta zerbitzu guztiak biltzen ditu eta horien beharra dutela frogatzen duten herriko biztanleen eskura jartzen ditu.

3. Gizarte laguntza fakultatiboaren ezaugarriak

Legezko gizarte laguntzaren kontra, gizarte laguntza fakultatiboa ez da nahitaezkoa eta GEHZren borondatearen arabera da. Laguntza horiek legezko gizarte laguntzarekin osa daitezke, eta Kanboko herriak garatutako gizarte-politikaren mende daude.

L'aide sociale facultative s'inscrit dans une logique de subsidiarité. Les aides facultatives du C.C.A.S. de Cambo-Les-Bains sont décidées et votées par le Conseil d'Administration. Elles ne sont donc pas obligatoires. Elles supposent que le demandeur ait préalablement et prioritairement fait ouvrir ses droits auprès des différents régimes légaux auxquels il peut prétendre. L'aide sociale facultative intervient après avoir épuisé ces différentes voies.

Cette logique peut être remise en cause dans des cas d'extrême urgence où les délais d'instruction de l'aide par les organismes compétents s'avèrent trop longs au vu de la situation rencontrée par le demandeur.

Par ailleurs, le C.C.A.S. rappelle que l'aide sociale facultative s'inscrit dans le strict respect du principe d'égalité devant le service public. Le C.C.A.S. s'engage à ce que toute personne ait droit au même secours que tout autre bénéficiaire placé dans une situation objectivement identique.

4. Modalités d'attribution des aides

4.1 Les droits et garanties reconnus à l'utilisateur

1. Secret professionnel

Toutes les personnes appelées à intervenir dans l'instruction et l'attribution des prestations d'aide sociale facultative, ainsi que toutes les personnes chargées d'une mission d'accueil, sont tenues au secret professionnel, conformément aux articles 226-13 et 226-14 du Code Pénal, à l'article 26 alinéa 1 de la Loi du 13 juillet 1983 portant Droits et Obligations des fonctionnaires et l'article L133-5 du Code de l'Action Sociale et des Familles.

Gizarte laguntza fakultatiboa subsidiarotasun-logika batean sartzen da. Kanboko GEHZren laguntza fakultatiboak GEHZren Administrazio Kontseiluak erabakitzen eta bozkatzeko dituzte. Beraz, ez dira nahitaezkoak. Ondorioz, eskatzaileak bere eskubideak alde aurretik eta lehentasunez ireki behar ditu, lortu nahi dituen legezko araubideetan. Bide horiek agortu ondoren esku hartzen du gizarte laguntza fakultatiboak.

Logika hori zalantzan jar daiteke larritasun handiko kasuetan, non erakunde eskudunen laguntza tramitatzeko epeak luzeegiak baitira eskatzailearen egoera larria ikusirik.

Gainera, GEHZk gogorarazten du gizarte laguntza fakultatiboa zerbitzu publikoaren aurrean berdintasun-printzipioa hertsiki errespetatzearen parte dela. Pertsona orok objektiboki berdin-berdina den egoeran dagoen beste edozein onuraduni ematen zaion laguntza bera jasotzeko eskubidea izateko konpromisoa hartzen du GEHZk.

4. Laguntzak esleitzeko moduak

4.1 Erabiltzaileari onartutako eskubideak eta bermeak

1. Sekretu profesionala

Gizarte laguntza fakultatiboko prestazioen instrukzioan eta esleipenean parte hartu behar duten pertsona guztiak, bai eta harrera-misio baten ardura duten pertsona guztiak ere, sekretu profesionalean daude, Zigor Kodearen 226-13 eta 226-14. artikuluen, Funtzionarioen Eskubide eta Betebeharrei buruzko 1983ko uztailaren 13ko legearen 26. artikuluko 1. paragrafoaren eta Gizarte Ekintzaren eta Familien Kodearen L133-5. artikuluen arabera.

2. Droit d'accès aux dossiers

Le droit d'accès aux dossiers est régi par les lois n°78-753 du 17 juillet 1978 et 2000-321 du 12 avril 2000. Toute personne a droit à communication des documents administratifs à caractère nominatif la concernant. Cette communication s'exerce, après une demande écrite préalable, par consultation gratuite avec ou sans délivrance de copie en un exemplaire aux frais du demandeur. Les dossiers archivés sont communicables dans les mêmes conditions.

3. Droits de recours

- Recours gracieux : l'utilisateur dispose de 2 mois pour faire appel de la décision prononcée par le C.C.A.S. de Cambo-Les-Bains. Il doit déposer ou envoyer un courrier à l'attention du Président du CCAS. L'utilisateur doit fournir des éléments ou des informations complémentaires, donnant au C.C.A.S. un éclairage nouveau sur sa situation. Il ne pourra être présenté qu'un seul recours par demande.

- Recours contentieux : l'utilisateur peut saisir le Tribunal administratif de Pau (50 Cours Lyautey, 64010 Pau) pour contester la légalité de la décision qui lui est opposée dans les délais et conditions réglementaires. Il dispose d'un délai de deux mois, à compter de la notification de ladite décision, pour saisir cette juridiction administrative conformément aux dispositions des articles R.421-1 et R.421-5 du Code de Justice Administrative et de l'article 19 de la loi n°2000-321 du 12 avril 2000.

4.2 L'instruction des demandes

Toutes les demandes d'aide facultative sont instruites soit par la secrétaire, soit par l'assistante sociale du C.C.A.S.

2. Dossierretan sarbidea izateko eskubidea

Dossierretan sarbidea izateko eskubidea 1978ko uztailaren 17ko 78-753 zenbakidun legeak eta 2000ko apirilaren 12ko 2000-321 zenbakidun legeak arautzen dute. Pertsona orok administrazio-agiri izendunetan sarbidea izateko eskubidea du. Eskubide hori gauzatzen da, aldez aurretik idatziz eskatuta, doako kontsulta baten bidez, kopia bat luzatuta edo eman gabe, eta eskatzailearen kontura. Artxibatutako dossierretan sarbidea izan daiteke, baldintza beretan.

3. Errekurtso-eskubideak

- Doako-Errekurtsoa: Erabiltzaileak bi hilabete ditu Kanboko GEHZk emandako erabakiari errekurtsoa aurkezteko. Gutun bat aurkeztu edo bidali behar du, GEHZko lehendakariari zuzenduta. Erabiltzaileak elementu edo informazio osagarriak eman behar ditu, GEHZri bere egoerari buruzko argibide berriak emateko. Eskaera bakoitzeko errekurtso bakarra aurkezten ahal da.

- Auzi-errekurtsoa: Erabiltzaileak Paueko Administrazio Auzitegira jo dezake (50 Cours Lyautey, 64010 Pau), arauzko epe eta baldintzetan kontra egiten zaion erabakiaren legezkotasuna eztabaidan jartzeko. Bi hilabeteko epea du, erabaki hori jakinarazten zaion momentutik aurrera, afera jurisdikzio administratibo horren esku uzteko, Justizia Administrazioaren Kodearen R.421-1. eta R.421-5. artikuluetako xedapenen eta 2000ko apirilaren 12ko 2000-321 zenbakidun legearen 19. artikuluko xedapenen arabera.

4.2 Eskaeren instrukzioa

Laguntza fakultatiboko eskaera guztiak idazkariak edo GEHZko gizarte

Pour les demandes d'aide financière, un formulaire unique de demande d'aide financière doit être présenté. Le partenaire qui souhaite faire une demande doit exposer de façon claire et précise la situation de l'administré et fournir les justificatifs correspondants.

4.3 Les conditions d'éligibilité

- Etat civil : Les aides étant accordées à titre personnel, chaque demandeur devra décliner son identité, et le cas échéant celle des membres de la famille, sa situation familiale et en fournir les justificatifs.

- Domicile : Il faut être résident, hébergé chez un tiers sur la commune de Cambo-Les-Bains, ou domicilié au C.C.A.S. de Cambo-Les-Bains.

- Age : Il n'y a pas de critères d'âge.

- Situation administrative : Les prestations d'aide sociale facultative sont accordées à toutes les personnes remplissant les conditions de nationalité ou de séjour sur le territoire français. Le Conseil d'Administration du C.C.A.S. se réserve le droit d'étudier certaines situations et d'accorder des dérogations à cette condition.

- Ressources : L'attribution des aides sociales facultatives est soumise à des conditions de ressources dont les critères sont définis pour chacune d'entre elles. Elle relève également de la prise en compte de la situation sociale de la personne présentée dans la demande d'aide.

4.4 Les organes de décisions

- Le Conseil d'Administration

laguntzaileak bideratuko ditu.

Diru laguntzen eskaerarako, diru laguntza eskatzeko inprimaki bakarra aurkeztu behar da. Eskaera egin nahi duen bazkideak argi eta zehatz azaldu behar du administratuaren egoera, eta dagozkion frogagiriak eman behar ditu.

4.3 Hautagarritasun-baldintzak

- Egoera zibila: laguntzak norberaren izenean ematen dira; ondorioz, eskatzaile bakoitzak bere nortasuna – eta beharrez familiako kideena –, familiaren egoera eta frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

- Helbidea: Kanboko herrian bizi, hirugarren baten etxean bizi edo Kanboko GEHZn bizi izan behar da.

- Adina: ez dago adin-irizpiderik.

- Egoera administratiboa: Gizarte laguntza fakultatiboaren prestazioak Frantziako lurraldean nazionalitate edo egonaldi baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei ematen zaizkie. GEHZko Administrazio Kontseiluak zenbait egoera aztertzeko eta baldintza horri salbuespenak emateko eskubidea du.

- Baliabideak: Gizarte laguntza fakultatiboak emateko baliabide-baldintzak bete behar dira. Baliabide-baldintza horietako bakoitzerako irizpideak zehazten dira. Laguntza eskaera aurkeztu duen pertsonaren egoera soziala ere kontuan hartzen da.

4.4 Erabaki-organoak

- Administrazio Kontseilua

Il est composé des membres élus et nommés par le Président du C.C.A.S. Lors des Conseils d'Administration, les demandes d'aide financières sont présentées à l'aide du document type étudié au préalable par l'assistance sociale. Les membres votent l'attribution des aides à la majorité.

- La Commission Aide Financière du C.C.A.S.

Elle est composée du Vice-Président du C.C.A.S. et de 6 membres titulaires et suppléants. Ces derniers peuvent attribuer des aides financières. Il est ensuite rendu compte de l'attribution de ces aides auprès du Conseil d'Administration.

4.5 Les décisions

- Accord : En cas d'accord, l'aide est versée au prestataire ou à l'usager selon le type d'aide.

- Ajournement : L'attribution de l'aide peut être ajournée si le conseil considère ne pas avoir suffisamment d'informations pour être en mesure de prendre une décision.

- Rejet : Le Conseil d'Administration peut rejeter une demande si les organes compétents n'ont pas été sollicités en amont ou si la personne ne remplit pas les conditions. Dans ce cas, le rejet est motivé à travers un courrier adressé au demandeur.

5. Présentation des aides

- Aide à la cantine
- Aide au chauffage
- Aides financières exceptionnelles
- Secours d'urgence

GEHZko lehendakariak hautatutako eta izendatutako kideek osatzen dute. Administrazio Kontseiluetan, diru laguntza eskaerak gizarte laguntzaileak alde aurretik aztertutako eredu-dokumentuaren laguntzarekin aurkezten dira. Gehiengoak alde bozkatu ondoren, kideek laguntzak ematen dituzte.

- GEHZren Diru Laguntza Batzordea

GEHZko lehendakariordeak eta 6 kide titular eta ordezkok osatzen dute. Horiek diru laguntzak eman ditzakete. Ondoren, Administrazio Kontseiluari laguntza horiek esleitu direla jakinarazten zaio.

4.5 Erabakiak

- Akordioa: Adostuz gero, laguntza hornitzaileari edo erabiltzaileari ordainduko zaio, laguntza-motaren arabera.

- Atzerapena: Laguntzaren esleipena atzeratu egin daiteke, kontseiluak erabaki bat hartzeko nahikoa informazio ez duela uste badu.

- Errefusatzea: Administrazio Kontseiluak eskaera bati uko egin diezaiotke organo eskudunei lehenago eskatu ez bazaie edo pertsonak baldintzak betetzen ez baditu. Kasu horretan, errefusatzea arrazoitu egiten da, eskatzaileari bidalitako mezu baten bidez.

5. Laguntzen aurkezpena

- Jantegiko laguntza
- Berokuntza-laguntza
- Ezohiko diru laguntzak
- Larrialdiko laguntzak

Aide à la cantine – Jantegiko laguntza

Objectif de l'aide Laguntzaren helburua	<p>Apporter une aide financière aux familles et ainsi leur permettre de régler les factures de cantine scolaire de leurs enfants.</p> <p>Familiiei diru laguntza ematea, seme-alaben jantegiko fakturak ordaindu ahal izateko.</p>								
Public Publikoa	<p>Enfants résidants et scolarisés sur la commune de Cambo-Les Bains.</p> <p>Kanboko herrian bizi eta eskolatutako haurrak.</p>								
Forme de l'aide Laguntza-mota	<p>Prise en charge financière de tout ou partie du montant des factures de cantine scolaire. Aide directement versée aux organismes de cantine.</p> <p>Eskolako jantegiko fakturen kopuru osoaren edo zati baten diru laguntza. Kantina-erakundeei zuzenean ordaindutako laguntza.</p>								
Conditions de ressources Baliabideen baldintzak	<p>L'aide est basée sur le Quotient Familial CAF. La prise en charge se fait ainsi :</p> <p>Familien laguntza kutxaren (CAF) familiaren zatiduran (QF) oinarritzen da laguntza. Laguntza horrela kalkulatzen da:</p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <tr> <td style="text-align: center;">QF <= 200</td> <td style="text-align: center;">70 %</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">QF > 201 & <= 400</td> <td style="text-align: center;">55 %</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">QF > 401 & <= 600</td> <td style="text-align: center;">40 %</td> </tr> <tr> <td style="text-align: center;">QF > 600 & <= 800</td> <td style="text-align: center;">25 %</td> </tr> </table>	QF <= 200	70 %	QF > 201 & <= 400	55 %	QF > 401 & <= 600	40 %	QF > 600 & <= 800	25 %
QF <= 200	70 %								
QF > 201 & <= 400	55 %								
QF > 401 & <= 600	40 %								
QF > 600 & <= 800	25 %								
Procédure de demande Eskaera-prozedura	<p>La demande est à faire auprès du C.C.A.S. par le représentant légal de l'enfant. Etude de la situation lors d'un rendez-vous avec la secrétaire du C.C.A.S. à l'aide des documents demandés.</p> <p>Eskaera GEHZri egin behar dio hauraren legezko ordezkariak. GEHZko idazkariarekin finkatutako hitzorduan, eskatutako dokumentuak erabiliz, egoera aztertzen da.</p>								
Montant Zenbatekoa	<p>Cette aide est accordée par trimestre. Elle est réétudiée à chaque changement de quotient familial.</p> <p>Laguntza hau hiruhilero ematen da. Familia-zatiduraren aldaketa guzietz berrikusten da.</p>								
Mise en œuvre de l'aide Laguntzaren aplikazioa	<p>Le bénéficiaire reçoit un courrier l'informant de l'accord ou du rejet de l'aide. Les organismes créditeurs sont informés par le C.C.A.S. de la liste des familles bénéficiaires de l'aide.</p> <p>Onuradunak mezu bat jasoko du laguntzaren erabakiaren edo ukapenaren berri jakiteko. GEHZk erakunde kreditudunei laguntza jasoko duten familia onuradunen zerrenda jakinarazten die.</p>								

Aide au chauffage – Berokuntza-laguntza

Objectif de l'aide Laguntzaren helburua	Apporter un soutien au budget des personnes âgées ou bénéficiaires de minima sociaux. Adineko pertsonen edo gutxieneko sozialen onuradunen aurrekontuari laguntza ematea.
Public Publikoa	Habitants de Cambo-Les-Bains. Kanboko biztanleak.
Forme de l'aide Laguntza-mota	Virement bancaire effectué sur le compte du bénéficiaire. Banku-transferentzia onuradunaren kontura.
Conditions de ressources Baliabideen baldintzak	Les ressources de l'usager ne doivent pas dépasser 20% du minimum vieillesse. Erabiltzailearen baliabideek ez dute gutxieneko zahartzaroaren %20 gainditu behar.
Procédure de demande Eskaera-prozedura	La demande est à faire auprès de l'assistante sociale du C.C.A.S. Etude de la situation lors d'un rendez-vous à l'aide des documents demandés. La demande est à renouveler par le bénéficiaire chaque année. Eskaera GEHZko gizarte laguntzaileari egin behar zaio. Hitzordu baten denboran, eskatutako dokumentuak erabiliz, egoera aztertzen da. Eskatera urtero berritu behar du onuradunak.
Montant Zenbatekoa	Le montant de l'aide est de 200 euros par an (montant déterminé par le Conseil d'Administration par délibération). Laguntzaren zenbatekoa 200 eurokoa da urtean (Administrazio Kontseiluak hala erabakita).
Mise en œuvre de l'aide Laguntzaren aplikazioa	L'aide est versée au bénéficiaire en fin d'année civile par virement bancaire. Laguntza urte zibilaren amaieran ordainduko zaio onuradunari, banku-transferentziaren bidez.

Aides financières exceptionnelles – Ezohiko diru laguntzak

Objectif de l'aide Laguntzaren helburua	<p>Apporter un soutien aux personnes confrontées à des difficultés financières passagères.</p> <p>Diru-arazo iragankorrak dituzten pertsoneri laguntza ematea.</p>
Public Publikoa	<p>Pour tout habitant de Cambo-Les-Bains ayant fait valoir ses droits auprès d'autres organismes ou en complément d'autres organismes.</p> <p>Beste erakunde batzuen aldean edo beste erakunde batzuen osagarri gisa beren eskubideak baliarazi dituzten Kanboko biztanle guztientzat.</p>
Forme de l'aide Laguntza-mota	<p>L'aide apportée a la forme d'un virement bancaire. Cette aide peut concerner la prise en charge d'une facture d'énergie, de loyer, des frais de scolarité, de formation, d'apprentissage de la conduite, un achat exceptionnel (type véhicule, ordinateur...), ...etc</p> <p>Emandako laguntza banku-transferentzia bat da. Laguntza horren ondorioz, energiaren, alokairuaren, eskolako gastuen, formakuntzen, gidatzeko ikaskuntzaren, ohiz kanpoko erosketen (ibilgailua, ordenagailua...) eta abarren fakturak ordainduko dira.</p>
Conditions de ressources Baliabideen baldintzak	<p>Le bénéficiaire doit avoir des ressources ou un reste à vivre insuffisants.</p> <p>Onuradunak nahikoak ez diren baliabideak edo gainerakoak izan behar ditu.</p>
Procédure de demande Eskaera-prozedura	<p>La demande d'aide est reçue par l'assistante sociale du C.C.A.S. ou un travailleur social du secteur qui remplit un formulaire de demande spécifique aux aides financières. La demande est ensuite présentée en Conseil d'Administration ou en Commission d'Aide Financière.</p> <p>GEHZko gizarte laguntzaileak edo sektoreko gizarte-langile batek laguntza eskaera jasotzen du eta diru laguntzetarako berriazko eskaera-inprimakia betetzen du. Ondoren, eskaera Administrazio Kontseiluan edo Diru Laguntza Batzordean aurkezten da.</p>
Montant Zenbatekoa	<p>Les montants sont accordés en fonction des demandes et des situations.</p> <p>Zenbatekoak eskaeren eta egoeren arabera ematen dira.</p>
Mise en œuvre de l'aide Laguntzaren aplikazioa	<p>Selon les cas, l'aide peut être versée soit directement au créancier, soit au bénéficiaire.</p> <p>Kasuaren arabera, laguntza zuzenean ordain dakioko hartzekodunari edo onuradunari.</p>

Secours d'urgence – Larrialdiko laguntzak

Objectif de l'aide Laguntzaren helburua	<p>Apporter une aide rapide à des personnes rencontrant des difficultés financières, alimentaires, d'énergie, d'hébergement, ou de déplacement.</p> <p>Diru-, elikagai-, energia-, ostatu- edo lekualdatze-arazoak dituzten pertsoneri laguntza azkarra ematea.</p>
Public Publikoa	<p>Personnes en situation de précarité ou en situation ponctuellement difficile qui résident à Cambo-Les-Bains (ou conditions dérogatoires exceptionnelles).</p> <p>Kanbon bizi diren eta prekaritate egoeran edo noizbehinka egoera zailean dauden pertsonak (edo salbuespenezko baldintza indargabetzaileak).</p>
Forme de l'aide Laguntza-mota	<p>Aide ponctuelle sous forme de don en numéraire.</p> <p>Unean uneko laguntza, eskudirutan ematen dena.</p>
Conditions de ressources Baliabideen baldintzak	<p>Reste à vivre insuffisant et/ou dépenses exceptionnelles.</p> <p>Baliabide nahikorik ez edota ezohiko gastuak.</p>
Procédure de demande Eskaera-prozedura	<p>La demande est à faire auprès du C.C.A.S. Etude de la situation par l'assistante sociale qui s'en remet à la décision de l'autorité territoriale d'attribuer ou non l'aide au moment de la demande.</p> <p>Eskaera GEHZri egin behar zaio. Gizarte-laguntzaileak egoera aztertzen du, eta ondotik lurralde-agintaritzak laguntza esleitzeko edo ez esleitzeko erabakia hartzen du.</p>
Montant Zenbatekoa	<p>Le montant maximal pouvant être attribué en secours d'urgence est de 100 euros par personne et par foyer.</p> <p>Larrialdiko laguntzagatik, gehienez ere pertsonako eta etxeko 100 euro eman daitezke.</p>
Mise en œuvre de l'aide Laguntzaren aplikazioa	<p>L'aide d'urgence est versée directement au bénéficiaire. Celui-ci devra signer un reçu.</p> <p>Larrialdiko laguntza zuzenean ordainduko zaio onuradunari. Ordainagiri bat sinatu beharko du.</p>